

Erf.: Auzo alkateak izendatzeko hauteskundeak 2015
Tx. zk.: 15/

Karmeke Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

TXOSTENA

Planteatutako gaia

Auzo alkateak izendatzeko hauteskundeen prozesuari hasiera emotea.

Nork eskatu dauen txostena

Ofizioz.

Aurrekariak

Bakarra: Lugintza batzordeak, auzo alkateak izendatzeko hauteskundeen prozesuari hasiera emotearen aldeko erispena emon eutson.

Argudioak

Bakarra: Lugintza batzordeak onetsitako proposamenean, Auzo alkateak izendatzeko hauteskundeak abenduaren 13an egitea onesten zan, 10:00etatik 13:00etara, mahai bana ipinita auzo bakotxean.

Baina kontutan eukita abenduaren 20an hauteskunde orokorrak dagozala, prozesu biak bateratzea eta egun berean egitea proposatzen da, modu honetan:

Ordutegia: 09:00etatik 20:00etara. Mahai bakarra egongo da, auzo bakotxerako hautestontzi bategaz, hau da, 9 hautestontzi.

Informatzen doguna, jagokozan ondorioetarako

Bermeon, 2015eko azaroaren 12an

Karmeke Muñoa Arrigain
Behin-behineko Idazkaria